

GAKO EKONOMIKOAK

- Aurrera pausoak pandemiaren kontrolean, eta hobetze ekonomikoaren itxaropena, mundu mailako txertatze kanpainak bultzatuta.
- Igoerak burtsan, balio ziklikoagoetara zuzendutako sektoreen errotazioarekin batera.
- Errenta finkoko bonuen interesen gorakada sendoa, AEBko inflazioaren igoera espero baino handiagoa izango ahal dan beldurraren ondorioz.
- Dolarraren balioa igo da, hilaren bukaeran gehienbat. % 17 igo da petrolioaren prezioa.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Otsailean, pandemiaren eboluzioak hoherantz egin du mundu mailan, 2020 bukaeran eta 2021 hasieran hainbat gobernu birusaren hedapena gelditzeko ezarritako murrizketei eta txertoen aurrera pausoei esker. Horri esker, hainbat herrialdek, Alemaniak eta Erresuma Batuak esaterako, deskonfinamendu estrategiaz ari dira dagoeneko. Halaber, Euro Zonako zerga laguntza berriek, are zehatzago, AEBn martxoaroko espero diren 1,9 milioi dolarrek, eta Amerikan Johnson and Johnson txerto berria onartzeak (zeina laster Europan ere egon daitekeen), ziklo ekonomikoa berpizten ari denaren itxaropena sortu du. Oraingoz, AEBko datuek hobekuntza argia azaltzen dute, kontsumoari dagokionez bereziki, familiei laguntzeko txekuek bultzatuta, abenduaren bukaeran hartutako 900.000 milioi dolarreko suspertze planaren esparruan. Hala ere, Amerikako ekonomia % 4,1 igo da, urteko laugarren hiruhilekoan zenbatuta. Horrek Covid-aren ondorioz 2020. urtean zehar izandako % 3,5eko erorikoa orekatzen lagundu du. 2021erako estimazioek gora egin dute eta dagoeneko aurreko % 6 inguruko igoerak espero dira. Europak, bestetik, 2021aren lehenengo sei hileko gogorra izan dezake oraindik. Berragertzeak eta berriz itxteek % 0,7ko jaitziera eragin zituzten urriaren eta abenduaren artean, eta 2020an kontratazioa % 6,8koa izan da. Izan ere, Alemaniak eman du ezustekoa, nahiz eta murrizketa sendoak ezarri, 2020ko 4. hiruhilekoan haztea lortu baitu. Europar agintarien aurreikuspenek urtearen bigarren zatian jarri dituzte itxaropenak, txertatze masiboaren eragina nabarmentzen hasiko denean. Laburbilduz, ziklo ekonomikoaren suspertze itxaropen orokor horrek inbertitzaileen sententzioak hobetu ditu eta lehengaien eskaerak gora egin du. Bestetik, espero den inflazioa da finantza merkatuetan eztabaidagai berria, azken asteetan igo egin baitu. Ekonomiki suspertzeko injektatu diren likidezia kantitate handiei beldurrak eta baita laster hoherantz egingo dugunaren itxaropenak inflazioa igotzeari ere, alarmak piztu ditu banku zentralak euren politika hedakorra uste baino lehenago eraldatu behar izango dutenaren inguruan. Horrek astindu galanta eman du bonuen merkatuan. Gainera, finantzazio baldintzak gogortzen badira errenta finkoaren igoerak konpainia geldoan izan dezakeen efektuarengatik kezka ere areagotu du. Bai FEDa bai BCEa berehala saiatu dira merkatuak berehala lasaitzen, eta behin behineko inflazioaren gorakadak direla esaten, eta finantza baldintzak gogortzen utziko ez dutela adierazi dute. Berriz ere esan dute monetaren hedapen mugagabeari eutsiko diotela beharrezkoa den bitartean.

ERRENTA ALDAKORRA

Hilabete zehar, inbertitzaileek arisku gogoa areagotu dute, Mundu mailan azken aldiari izandako enpresa emaitza onen ezusteko portzentaia handiagoa nagusi izan duen esparruan. Gose hori hilaren bukaeran baino ez zen apur bat moteldu, inflazioak gora egingo duenaren susmoaren ondorioz. Irabaziak orokorrak izan ziren Atlantikoaren bi aldeetan. Eurozonako burtsen osotasunak, hau da, Eurostoxx-50, % 4,4 izan du, eta Ibeta izan da eskualdeko indizeirik onena, % 6arekin, sektore profil ziklikoagoa delako. Fluxuek Energia (Brent gordinaren prezioa 64\$/upela-tik gorako prezioan), Bidaia eta Aisialdia (Erresuma Batuaren deskonfinamenduaren egutegiak bultzatuta), Bankuak eta atzean geratu ziren gainerako sektoreei lagundu diete zalantzarik gabe. Europar bigarren indize onena Italiakoa izan da, Mario Draghi ejekutiboaren presidente jarri zenez geroztik. Kontinente Zaharraren gainerako indizeek % 2 eta % 5 bitarteko gorakadak izan dituzte. AEBtan, Dow Jones eta S&P-500 indizeek % 3,1 eta % 2,6 lortu dute, hurrenez hurren. Nasdaq selektibo teknologikoak negatiboan bukatu du, % 0,12, iazko martxotik birbalorizazio handiena metatzen duen sektoreko inbertitzaileak irten ondoren, hilaren azken egunetan bereziki. Gainerako merkatuei dagokionez, Japonia % 4,7 igo da eta emergenteak, oro har, % 0,7 gutzira, Asiako burtsen gorakada nabarmenarekin.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	HILEKO ALDAK.	2021eko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	8.225,00	EUR	%6,03	%1,87
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.636,44	EUR	%4,45	%2,36
S&P-500	AEB	3.811,15	USD	%2,61	%1,47
DOW JONES	AEB	30.932,37	USD	%3,17	%1,06
NASDAQ 100	AEB	12.909,44	USD	%-0,12	%0,16
NIKKEI-225	JAPONIA	28.966,01	JPY	%4,71	%5,55
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.339,26	USD	%0,73	%3,72
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.726,91	EUR	%2,45	%1,37

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOIA

Espero zenaren gaineko inflazioaren igoera sendoagatik kezka bonuen aldeko benetako errestagarritasuna jaitziko dituenak, 10 urterako zor amerikarraren zuzenketa eragin du. Haren interesa, prezioaren alderantziz gigitzen dena, % 1,40ra igo da aurreko hileko % 1,07tik. Era berean, europarra Amerikako bonuen salmentek aurretik eraman dute, nahiz eta neurri txikiago batean. Alemana -% 0,26ra iritsi da, aurretik -% 0,52an bazegoen ere. Bestetik, herrialde periferikoek ere tentsioak bizi izan dituzte eta haien arriskuko prima ere igo da, Italiak izan ezik. Espainiar bonuaren kasuan, 7 puntu, % 0,62ra iritsi arte. Errenta finko pribatuak jarraera hobea izan du, eta zor publikoarekiko diferentzialak murriztea lortu du.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	HILEKO ALDAK.	2021ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,53	0,00	0,01
	6 HIL.	-0,52	0,00	0,01
	12 HIL.	-0,48	0,00	0,02
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,66	0,07	0,04
	5 URTE	-0,57	0,17	0,17
	10 URTE	-0,26	0,26	0,31
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOIA	2 URTE	-0,41	0,13	0,22
	5 URTE	-0,18	0,19	0,21
	10 URTE	0,42	0,33	0,38

Iturria: Bloomberg

DIBISAK ETA LEHENGAIK

Amerikako errenta finkoko tasen igoerak dolarra sendotu dute hile honetan, gainerako dibisen ondoan. Halere, euroaren aldean ez da oso handia izan, % 0,3 alegia, eta 1,208\$/€ bukatu du. Bestetik, librak % 2ko sendotasuna izan du euroaren aurka, Erresuma Batua bere ekonomia berriz irekitzea aurreikusita duela buruan. Lehengaien merkatuan, guztien baloreen igoera, petrolioaren buruan, zeinak gorantz egin duen % 17tik gora, ziklo ekonomikoaren azelerazio itxaropenarengatik, eta urtean zehar ia % 26 igo den. Urrea, bestetik, gehien kaltetu dituen aktiboetako bat eta dolarraren inbertitzaileen babesa izan da, eta % 6 erori da hilabete honetan.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg